

2007-09-11ko OHIZ KANPOKO UDALBATZA

Iruran, bi mila eta zazpigarren urteko irailaren hamaikan, arratsaldeko 20:30etan, udaletxeko udalbatza-aretoan, ohiz kanpoko batzarra egin du Udalbatzak, alkatea –Marimi Ugalde Zabala andrea– buru duela.

Zinegotzi hauek izan dira bileran:; M. Jesus Otaño Zumeta andrea, Eugenio Loidi Garmendia jauna, Agustin Zubeldia Iraola jauna, eta Jose Luis Olano Zubeldia jauna.

Ez dira etorri eta ezin etorria adierazi du: Gregorio Lasa Etxezarreta jaunak.

Ez dira etorri eta ez du adierazi ezin etorria: Aitor Lasa Olalde jaunak.

Udaleko idazkariak, Bittor Agirreurreta Murgia jaunak, egin ditu idazkari-lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta haren baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutako gutxieneko partaide-kopurua bertaratua baita.

LEHENBIZIKO GAIA

AURREKO UDAL BATZORDEKO AKTAK ONARTZEA (07/07/27).

2007ko uztailaren 27ko ezohiko saioaren aktaren zirriborroa ikusita, aho batez erabaki zuen Udalbatzak hau onartzea.

BIGARREN GAIA

ALKATETZAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA.

Alkateak honako dekretuen berri ematen dio udalbatzari:

-2007-07-13ko 75/07 Dekretua: Naturgas Energiak egiten duen Udal jabari publikoaren erabilpen pribatibo eta aprobetxamendu bereziagatik likidazioa.

-2007-07-16ko 76/07 Dekretua: Ekainari dagozkion fakturak onartzea, 32.950,33€ko zenbatekoa osatzen dutelarik eta Construcciones Ugarte S.L. ren 40.687,24€ko zertifikazioa Osasun Zentro berria eraikitzeari dagokiona.

-2007-07-18ko 77/07 Dekretua: José M^a Echeverria Sagardiak etxeko sukaldea konpontzeko egindako obra baimen eskaera onartzea.

-2007-07-19ko 78/07 Dekretua: Zilar kalea 8.eko jabekideei obra baimena onartzea igogailu berriaren hobiko urak biltzeko..

-2007-07-19ko 79/07 Dekretua: 4.169,16 €ko gizarte larrialdiko laguntzak onartzea hiru onuradunentzat.

-2007-07-19ko 80/07 Dekretua: alkateordeak izendatzea.

-2007-07-20ko 81/07 Dekretua: alkatea lehenengo alkateordearengan eskuordetzea Iker Ugalde Gorostiaga peoiaren lan kontratuaren aldaketarako.

-2007-07-23ko 82/07 Dekretua: Jose Ignacio Lasa eta Lhou Ouahziziren oporrak direla eta, Iker Ugalde Gorostiaga peoiaren lan kontratuaren aldaketa.

-2007-07-24ko 83/07 Dekretua: Construcciones Ugarte S.L.-k, osasun zentru

berriaren lehiaketarako jarritako behin behineko fidantza itzultzea.

-2007-07-24ko 84/07 Dekretua: Mercado y Desarrollo de Terrenos, S.L.-k, 6 etxebizitzatako partzela pribatuaren sarreran atea jartzeko egindako baimen eskaera onartzea.

-2007-07-26ko 85/07 Dekretua: Irurako ikasleak garraiatzeko, Anoetako Herri Ikastolarekin sinatutako hitzarmenaren arabera, azken honi 13.330,30€ko ordainketa egitea onartzea.

-2007-07-30eko 86/07 Dekretua: Irurako udalerriko edateko ur sarea berritu eta hobetzeko lanak aurrera eramateko asmoz, indarrean dagoen dirulaguntza ekitaldian eskaera egitea.

-2007-08-01eko 87/07 Dekretua: Construcciones Aburuza S.A. eta Promociones Epergain, S.L.-ek eskatutako lehen okupaziorako lizentzia eta bizigarritasun zedula ematea, 24. zonaldeko A partzelan dauden 104 etxebizitzarako.

-2007-08-06ko 88/07 Dekretua: Uztailari dagozkion fakturak onartzea, 31.385,12€ko zenbatekoa osatzen dutelarik; Setalde S.A.-ren 9.186,10€ko faktura argiteriko luminaria berriengatik eta Percor-en 2.066,45€ko faktura osasun zentroko kortinengatik.

-2007-08-07ko 89/07 Dekretua: 2006ko likidazio dekretuan nabaritutako transkripzio akatsak zuzentzea.

-2007-08-21eko 90/07 Dekretua: Mercado y Desarrollo de Terrenos, S.L.-ek sustatutako Irurako Arau Subsidiarioetako 16. zonaldearen eraikitako etxebizitza familiabakarrekoarentzat lehen okupaziorako lizentzia ematea.

-2007-08-27ko 91/07 Dekretua: Irurako udalaren trakzio mekanikozko ibilgailuen gaineko zerga ordaintzetik salbuestea, Ignacio M^a Zubeldia Iztuetaren eskaera onartuz.

-2007-09-06ko 92/07 Dekretua: Euskara ikastera joan diren ikasleei (Loli Cañas Palacios eta beste batzuk) diru laguntza onartzea, diru laguntzak ematea arautzen duen udal-ordenantzaren arabera.

Hori dela eta, udalbatzak aho batez adierazi du jakinaren gainean dagoela.

HIRUGARREN GAIA

ONARTZEA, BADAGOKIO, HERRI IRAKASKUNTZA MANKOMUNITATEKO JUNTAK, MANKOMUNITATE HAU DESEGITEKO HARTURIKO AKORDIOA BERRESTEA.

2007ko martxoaren 28an, Herri Irakaskuntza Mankomunitateko juntak, mankomunitate hau desegiteko espedienteari hasiera emateko akordioa hartu zuen.

Herri irakaskuntza Mankomunitatea, Irura eta Anoetako udalek osatu zuten irakaskuntza sustatzeko helburuarekin. 1996. arte, bi udalerriek elkarbanatutako irakaskuntza publikoko zentroko mantenimendu gastuez arduratzen zen. Ondoren, zentro publikoa desagertu eta Euskal Gobernuko Hezkuntza Sailak hezkuntza kooperatiba bati eskola-eraikina erabiltzea baimentzen dionean, egoera

aldatu egin zen. Honen ondorioz, irakaskuntza zerbitzua eskaintzeko modua ezberdina da udalerrri bakoitzean eta Udal bakoitzak bere ahalbideek baimentzen duten era hoberenean egiten saiatzen dira (eskualde eskola publikoa, Irura eta Anoetako zentro pribatu kontzertatuak, eta abar). Irurako udala, aldi berean, udalerrriko irakaskuntza zentro bakar bezala ikastola baten ezarpena bultzatzen du.

Gainera, esperientziak erakutsi duenez, mankomunitatearen egitura astun eta konplexuegia da. Zerbitzu hau emateko, bi udalen arteko elkarlana egin nahi izan ezker, ordezkero aukera apropos eta sinpleagoak ere badaude (Hitzarmenak, Akordioak, ...).

Kontuan izan behar da baita ere, jada 1998an Herri Kontuen Euskal Epaitegiak mankomunitate honi buruzko txostena egin zuenean, honen disoluzioa gomendatzen zuen.

Orain proposatzen dena azken tramite formala dela esan daiteke. Ikusten den koxka bakarra, ikastola eta langileen egoerari dagokiona litzateke. Honetan ari dira, irtenbideak aztertzen, bai ikastola eta baita langileentzat ere, baina oraindik ez da arazoa guztiz amaitu, fleko batzuk gelditzen dira

Herri irakaskuntza Mankomunitateko Juntak 2006ko martxoaren 28an ospaturiko ohikanpoko bilkuran harturiko akordioa kontuan izanik, partaideek aho batez erabakitzen dute:

Lehena.- 2006ko martxoaren 28an Herri irakaskuntza Mankomunitateko Juntak berau desegiteko harturiko akordioa berrestea.

Bigarrena.- Aipaturiko mankomunitatea desegiteko beharrezkoak diren dokumentuak publiko nahiz pribatuak sinatzeko ahalmena ematea Irurako udaleko alkate-lehendakari andreari.

LAUGARREN GAIA
ONARTZEA, BADAGOKIO, GASPAR ENEA ETA ALDAPAGAIN GUNEEN
GARAPEN ETA URBANIZAZIORAKO HIRIGINTZA HITZARMENA ETA
HITZARMEN HAU SINATZEKO ALKATEA AHALORDETZEA.

2007ko maiatzaren 17an, alkatetza dekretu bidez, behin behineko onarpena eman zitzaion Jokin Iraola Elosegik, Kikilau S.L.-ren izenean, aurkeztutako Irurako Hirigintz Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 5. zonari buruzko xehetasunezko azterketari. Berau, Jose M^a eta Karmen Alkorta Azkue arkitektuek idatzitako proiektu teknikoaren arabera da eta 2007ko apirilaren 12an dagokion Elkarte Profesionalak bisatua.

Espedientea informazio publikoan 20 lan egunez egon ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia ezarriz 2007ko maiatzaren 29an eta gehien zabaltzen den egunkarian argitaratuz, alegazio bat aurkeztu zen baina ez zuen inongo aldaketa edo arazoa suposatu.

2007ko uztailaren 27ko ohiz kanpoko udalbatzak, 2/2006 legeak, ekainaren 30ekoak, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoak, bere 98. artikuluan eta indarrean dagoen 7/1985 legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak aitortzen dizkioten eskuduntzez baliatuz, behin betiko onarpena eman zion Irurako Hirigintz Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 5. zonari buruzko xehetasunezko azterketari.

Behin betiko onarpena eman ondoren, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2007ko abuztuaren 27an.

Orain gune hori garatzen jarraitzeko eta bertan eraikitzeko lizentzia lortze bidean, sustatzailearen eta Irurako udalaren arteko Hirigintza Hitzarmena sinatzea dagokio. Hitzarmen honek sustatzailearen asmoak azaltzen ditu, zein solairutaz ari garen, hauen deskribapena, sustatzailearen betebeharrak, Erkidegoak hirigintzako ekintzan sortutako gainbalioetan partehartzea ordaintzeko era (%10), eta abar.

Ekainaren 30ean onarturiko 2/2006 Legeak, Lurzoru eta Hirigintzari buruzkoak, 7. Xedapen Gehigarrian xedatzen duen hirigintza hitzarmenak tramitatzeko prozedura betetzeko, Irurako Udala eta sustatzailearen arteko hitzarmena jendaurrean jarri beharko da hogeit eguneko epean, alegazioak aurkezteko aukera emanez. Honenbestez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean bere osotasunean publikatu beharko da.

Hitzarmenaren testua ondoren jasotzen dena da:

"HITZARMENA

BILDURIK

ALDE BATETIK: MARIMI UGALDE andrea, Irurako Udaleko alkatea dena eta bertako Idazkari Kontu-hartzailea den BITTOR AGIRREURRETA MURGIA jaunak lagunduta, ekitaldi honen fede emanez.

BESTETIK: JOKIN IRAOLA ELOSEGI adin nagusia eta Larraulgo biztanlea dena, Babes Txulo etxean bizi dena eta 34.089.034-K NAZ duena.

ADIERAZTEN DUTE:

Ugalde andreak **IRURAKO UDALA**ren izenean eta honen ordezkari bezala, apirilaren 2ko Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1.985 Legearen 21.1 artikuluan jartzen duenaren arabera.

JOKIN IRAOLA ELOSEGI jaunak Billabonako Kale Berria 17an dagoen "KIKILAU, S.L." merkatalgunearen izenean eta honen ordezkari bezala, 2003ko maiatzaren 27an Donostiako Fermin Lizarazu Aramayo Notarioak baimendutako eskritura duena. Gipuzkoako Merkataritza-Erregistroan izena emanda dago 2077 Tomoan, SS-23383 Orrian, 208 Folioan, B20809810 IFZ zenbakiarekin. Administratzaile moduan azaltzen da, 2006ko maiatzaren 25an Tolosako Notarioa den Pedro Elosegui Bergarechek emandako eskuetsitako eskrituraren bidez, protokoloaren 585 zenbakiarekin.

Bi aldeek dute eta hala aitortzen dute **HIRIGINTZAKO HITZARMEN** hau formalizatzeko adina gaitasun legala. Honako hau adierazten dute

AURREKARIAK

I.- "KIKILAU, S.L." finka hauen jabe da:

1. Landa-finka: Gasparrena izeneko baserria, Irurako hemezortzi zenbakian garai batean eta sei gaur egun, Kale Nagusiko hamar zenbakian, Ekialdean eta Hegoaldean mugan du bere atea, Iparraldean edo eskubian hiru metro zabaleko lursailarekin, baratza eta garai batean ikuiluak izan ziren eta gaur egun Crispin Guashen jabetzan dagoenean banatuta eta Mendebaldean edo atzean, aipatutako baratza. Lursail osagarri modura, baserriko ekialde eta mendebaldeko ateak eta segidan dagoen baratza.

Jabetza: Salerosketa baten bidezko jabetza osoa, 2006ko ekainaren 23an Tolosako M^a Valentina Montero Villar notarioaren aurrean egindako eskrituren bidez.

Inskripzioa: Finka hau Tolosako jabetza-erregistroan izena emanda dago, 2123 tomoan, Irurako 34 liburuan, 96 folioan eta 265. finka.

2. Hirikoa: Aldapa-gain izeneko etxea, 150 m² dituen. Aurrealdean bi metroko zabalerako lursail eranskina du eta beste lursail bat hegoaldean. Finkak orotara 295, 10m² neurtzen ditu.

Jabetza: Salerosketa bidez jabetza 2007ko urtarrilaren 31an Tolosako notarioa den Larraitz Franco Galarragak bideraturako eskrituren bidez.

Inskripzioa: Finka hau Tolosako jabetza-erregistroan izena emanda dago 1206 tomoan, Irurako 15 liburuan, 77 folioa eta 295. finka.

Erantsita dagoen planoan bi finka hauek ikusi daitezke.

II.- Udal honek eraikin hauek bota nahi ditu eta Irurako Arau Subsidiarioetako hiri-lurreko 5 Zonaldeko parte diren Gaspar-Enea eta Aldapa-Gain eraikinak berritu. Helburu hau izanda, akordio batera iritsi gara lursailen jabearekin eta sustatzaileekin.

Hori horrela izanik, alde guztien artean adostutako Hirigintza Hitzarmen hau gauzatzen da

KLAUSULAK:

- 1.- Irurako Arau Subsidiarioetako 5 zonaldean dauden Gaspar –Enea eta Aldapa-Gain guneetarako sustatzaileak Irurako Udalarekin adostutako Xehetasunezko Azterketa egingo du eraikuntzaren lerrotzeko eta sestrak zehazteko eta Arau Subsidiarioetan zehazten diren oinarriak errespetatuz lursailaren zabaleraren antolaketa, gehienez ere 16 etxebizitza eginez.
 - 2.- Hirigintza exekuzioak dokumentu hauek aurkeztu behar ditu:
 - Hirigintza proiektua
 - Birpartzelatze proiektua edo ordezkoak
- Egikaritza pribatuaren araubidea kontuan izango da eta kontzertazio sistema erabiliko da.
- 3.- Ekainaren 30eko Lurzoru eta Hirigintza Legeak 2/2006ko 27,5 artikuluan esaten duen moduan, hirigintzaren eraikuntzaren %10 dohainik emateko agindua ordezkatzen da, hirigintza kargarik gabe eta dirutan 81.366euro eman behar dira, erantsitako txostenean zehazten den moduan.
 - 4.- Jabeek transmisiorako egiten dituzten txostenetan adierazi behar dute hartzaileak dokumentu honetan adierazten diren eskubide eta betebeharrak guztietan subrogatzen direla.
 - 5.- Hitzarmen hau Irurako Udalak onartu behar du, jendaurreko jakinarazpena egin ondoren.
 - 6.- Hitzarmen honetan adierazten ez den guztirako, aipatutako 2/2006 Legearen zazpigarren xedapen gehigarria oinarritzat hartuko da.

Hitzarmen honek zehazten dituen baldintzak irakurri ondoren ados agertzen dira eta ondorioz aurrez aipatutako tokian eta orduan, hiru kopia sinatzen dituzte.

ALKATEA

JOKIN IRAOLA ELOSEGI

IDAZKARIA”

Honen aurrean, udalbatzak, bertan daudenek aho batez hartutako erabakiaren bidez, ondokoa erabakitzen dute:

Lehena.- Aipatutako hitzarmena ontzat ematea eta arauen arabera, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta alegazioetarako 20 egunetako epea zabaltzea. Epe hori alegaziorik gabe amaitu ondoren bat, hitzarmena behin betiko onartutzat joko da.

Bigarrena.- Marimi Ugalde Zabalarri, Iurako udaleko alkate-lehendakari andreaki, Hitzarmena sinatzeko ahalmena ematea

Akordio hau erabatekoa da administrazioko bidean. Beraren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Donostiako

Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

BOSGARREN GAIA
ONARTZEA, BADAGOKIO, IRURAKO IKASTOLAREKIN HITZARMENA
SINATZEA, 2007-2008KO IKASTURTEAN 2-3 URTEKO HAURRAK
ESKOLARATZEKO ETA HITZARMEN HAU SINATZEKO ALKATEA
AHALORDETZEA.

2007ko irailaren 6ko sarrera data eta 1387 zenbakiarekin, Josune Aiestaranek, Irurako Ikastolaren izenean, bi urteko gelarako diru laguntza eskatzeko asmoz, dokumentu batzuei (nomina, tc2,...) sarrera ematen die.

Irurako Udalaren Osoko Bilkurak 2005eko irailaren 27an hartutako erabakiz, 2005eko urriaren 24an Udal honen eta Irurako Ikastolaren artean gai berberaren inguruan hitzarmen bat sinatu zen.

Esan beharra dago, hitzarmen horretan jasotzen denez, 2005-2006 ikasturteari dagokion hitzarmen bat dela eta bere efektuak jada sortuak dituela. Gaurkotze edo berriztatze automatiko klausularik jasotzen ez denez, ulertu behar da hitzarmen hori agortua dagoela, bere garaian perfektionatua izan zela eta bere sorrera ekarri zuen helburua iritsi ondoren amaitua dagoela.

Bestalde, Udal artxiboan sinatu gabe dagoen hitzarmen baten ale bat dago eta bertan, 2006ko irailaren 27ko Osoko Bilkuran hitzarmen hau sinatzeko erabakia hartu zela aipatzen da. Bilkura horretako aktetan, aldiz, ez dagoer gai honen inguruko ezer.

2007/08 ikasturteari begira, gisa honetako hitzarmena berritzeko asmoa egongo balitz, ekintza honek izaera pribatuko elkarte bati dirulaguntza ematea suposatzen duenez, interesatuek eskaera aurkeztearen beharra dago.

Hitzarmena ondokoa litzateke:

"Iruran, 2007ko ...renan.

BILDURIK:

Alde batetik, MARIMI UGALDE ZABALA Irurako Alkate-Lehendakari And.-a Irurako Udalaren Osoko Bilkurak 2007koren ...an hartutako erabakiz, ekintza honetan Udalaren izen eta ordezkari zapean aritzeko egokiro baimendua izan dena.

Bestetik, N.A.N. zenbakia duen, Irurako Ikastolako Lehendakaria, Ikastola honen izen eta ordezkari zapean.

Biak ekintza hau burutzeko ahalmen osoa onartzen dute.

AURREKARIAK:

Lehena.- Badira urte batzuk Irurako Ikastolak 2 urteko haurren eskolaratzeari ekiten diola. Aurtengo ikaskurtean haurren kopurua kontutan harturik, ikasle hain zuzen ere, beraiantzat bakarrik gela bat egokitzea eta irakasle berri bat kontratatzea dagokio. Bestalde, gelak ez du oraindik Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saitetik dirulaguntzarik jasotzen.

Guzti horregatik, ezinezkoa da Irurako Ikastolak dituen berezko baliabideekin bakarrik maila hau finantziatzea. Udal honek bestalde, zerbitzu hori mantentzeko finantziazioan laguntzea egokitzen jotzen du.

Bigarrena.- Honoko hitzarmen hau, Irurako Udalak, 2007koren ...an egindako Osoko Bilkuraren batzaraldian onartu zuen.

Hori dela eta, bi aldeek, honoko Hitzarmen hau onartzea erabakitzen dute, baina ondorengo klausulekin:

LEHENA.- Irurako Ikastolak, 2007-2008 ikasturtean, hala eskatzen duten 2 urte dituzten eta Irurako Udalerri hontan bizi diren haurrak eskolaratzeko konpromezua hartzen du, horretarako dagokion irakaslegoa kontratatu eta beharrezkoak diren gainontzeko ekintza- bideak burutuko dituelarik.

BIGARRENA.- Udal honek zerbitzua finantziatzen lagunduko du, irakaslearen lanak 2007-2008 ikasturtean zehar eta goizez bakarrik eragindako kostuaren %50 estaliko duen dirulaguntza emango duelarik, gehienez 3.606 €. Irakaslearen arduraldia luzatzea erabaki ezker, Irurako Ikastolaren kontura izango da bakarrik.

HIRUGARRENA.- Laguntza, ondorengo eran emango da:

- Urtarrilaren 1erako, Irurako Udalak 1.802,99 €-tako dirutza ordainduko dio Irurako Ikastolari.

- Gainerakoa, 2007-2008 ikasturte osoari dagozkion irakaslearen nominak eta Gizarte Segurantzaren kotizazio-agiriak aurkeztutakoan, inoiz ez ekainaren 30a baino lehenago.

LAUGARRENA.- Dena dela era, Zerbitzuaren erantzunkizuna, bere arlo guztietan (lan arloan, G.S., zibila, administratiboa e.a.) Irurako Ikastolak izango du.

BOSGARRENA.-

Azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorrak ezarritakoaren arabera, onuradunak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

- a) Nortasunaren egiaztagiria
- b) Legearen 13. artikuluan adierazten diren egoeretan ez dagoela zinez aitortzea.
- c) Foru Ogasun eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatuko du(t)en ziurtagiria(k).
- d) Aurkeztea, behar denean, baimendutako ordezkariak eginiko idatzia, ordaintzeko modua zehaztuz.

SEIGARRENA.- Irurako Ikastolak ez badu Hitzarmena betetzen, aurreikusitako laguntza indargabetzea erakarriko du eta badagokio, kontutan harturik zertan ez den betetzen eta Hitzarmen honen xedea, Udalari guztia edo zati bat itzuli beharko dio.

Eta adostasunaren adierazgarri bi aldeek sinatzen dute ale bikoitzean eta ondorio bakarrerako igortzen den agiri hau, aleetako bat Irurako Ikastolari ematen zaiolarik, bestea, Gorporazio honek jasoz, guztiaren berri nik, Idazkariak fede ematen dudalarik adierazitako data eta lekuan.

IDAZKARIA"

Honen aurrean, udalbatzak, bertan daudenek aho batez ondokoa erabakitzen dute:

Lehena.- Aipatutako hitzarmena ontzat ematea eta arauen arabera eta Marimi Ugalde Zabalari, Irurako udaleko alkate-lehendakari andreari, Hitzarmena sinatzeko ahalmena ematea.

Bigarrena.- Hitzarmen honetan aipatzen diren terminu berak aplikatzea 06 / 07 ikasturteko kasurako eta dagokionean ordainketa egitea onartzea.

Hirugarrena.- Diru kopurua jaso aurretik, Azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorrak ezarritakoaren arabera, onuradunak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

- a) Nortasunaren egiaztagiria
- b) Legearen 13. artikuluan adierazten diren egoeretan ez dagoela zinez aitortzea.
- c) Foru Ogasun eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatuko du(t)en ziurtagiria(k).
- d) Aurkeztea, behar denean, baimendutako ordezkariak eginiko idatzia, ordaintzeko modua zehaztuz.

Erabaki hau erabatekoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

SEIGARREN GAIA**ONARTZEA, BADAGOKIO, IRURAKO IKASTOLA ELKARTEAK "0" KOTATIK GORA ERAIKITZEKO EGINDAKO OBRA LIZENTZIA ESKAERA.**

Irurako udaleko ohiko osoko bilkurak 2006ko uztailaren 27an, besteen artean, aho batez onartu zuen ikastetxe berrirako lehiaketa arautzen duen baldintza pleguak, honi dagokion iragarkia, 2006ko irailaren 11an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zelarik.

Irurako udaleko ohiko osoko bilkurak 2007ko martxoaren 6an, besteen artean, aho batez onartu zuen ikastetxe berrirako lehiaketaren kontratazio mahaiak eginiko proposamena eta lizitazioa Irurako Ikastola Kooperatiba Elkarteari esleitzea erabaki zuen.

Miguel Amenabar Olozagak, Irurako Ikastola Kooperatiba Elkartearen

izenean, 2007ko martxoaren 28an, ikastola berriaren obra egiteko baimena eskatu zuen. Eskaerarekin batera oinarrizko proiektua, "0" kotarainoko exekuzio proiektua, segurtasun eta osasun estudioa eta kalitateko kontrola aurkeztuz, Iñaki Berasategi, Elisabeth Ena eta Xabier Berasategi arkitektoek idatzia eta dagokion elkargoak bisatua 2007ko martxoaren 28ko datarekin. Aipatutako "0" kotarainoko lanek ehun eta hirurogei mila bederatziehun eta berrogeita bi euro eta hirurogeita sei zentimoko (160.942,66€) aurrekontua zuten.

Alkatetzak, 2007ko maiatzaren 15ean 52/07 zenbakidun erabakikuntza hartu zuen. Bertan, idazkariaren, udal arkitektu teknikoaren eta udal aholkularia den arkitektuaren txostenak kontuan izanik, besteak beste, "0" kotarainoko eraikuntza lanak egiteko baimena eman zen, hainbat baldintza betetzekotan.

Miguel Amenabar Olozagak, Irurako Ikastola Kooperatiba Elkartearen izenean, 2007ko uztailaren 16ko sarrera data eta 1770 zenbakiarekin, ikastola berriaren proiektua medio, kota "0"tik aurrera obra egiteko baimena eskatu du. Eskaerarekin batera exekuzio proiektu bisatuaren 2 kopia aurkeztuz, Iñaki Berasategi, Elisabeth Ena eta Xabier Berasategi arkitektoek idatzia eta dagokion elkargoak bisatua 2007ko uztailaren 16ko datarekin. Eraikuntza osoaren exekuzio materialaren lanek milioi bat hogeita hamazazpi mila bederatziehun eta hamabi euro eta berrogeita lau zentimoko (1.032.912,44€) aurrekontua dute.

Aurkeztutako exekuzio proiektua, bat dator 2007ko martxoaren 29an bisatutako oinarrizko proiektuko parametro, aprobetxamendu eta abarrekin. Hala ere, lehenengo solairuaren fatxadaren material eta diseinuari dagokionez, aldaketa oso nabarmen bat agertzen da: **"caravista" adreiluaren ordeztu, raseatu eta margotu egiten da.**

Gogoan izan behar da, lehiaketaren kontratazio mahaiaren txostenak jasotzen duenez, lizitazioa esleitzerakoan, besteak beste, ondoko baldintza betetzekotan egin zuela:

- **Eraikinaren fatxada, mantentze lanik eragingo ez duen motakoa izan beharko du, ondorengo urteetan kosturik sor ez daitezen ("caravista").**

Txosten horretaz gain, kontuan izan beharreko da baita ere, Irurako Udalak eta Irurako Ikastola Kooperatiba Elkartek, 2007ko maiatzaren 16ko datarekin, **hitzarmena sinatua** dutela baldintza guzti hauek eta dagozkion gainontzekoak jasoaz.

Exekuzio proiektuak egiten duen materialen aldaketa hau, batetik, sinatutako hitzarmenaren aurkakoa da, eta bestetik, Kontratazio Mahaiaren esleipen baldintzatuaren zioetako baten aurkakoa.

Abuztuaren 29an bidalitako eskutitzaren bitartez, fatxadaren aldaketa arrazoitu eta justifikatzea eskatu zen. 2007ko irailaren 6ko sarrera data duen idazkiaren bidez erantzuna eman zen.

Honen aurrean, Idazkari – kontuhartzailearen eta udalaren aholkularia den arkitektuaren txostenak kontuan izanik, Udalbatzak, bertan daudenek aho batez ondokoa erabakitzen dute:

Lehena.- Exekuzio proiektuan proposatutako fatxadak ez ditu mantenimendu kostuak ekiditen. Jasotako hainbat dokumenturen azterketatik ondorioztatzen denez, “caravista” motako fatxada egiteak suposatzen duen kostua berehala amortizatzen da mantenimendu kostuak suposatuko duena ekidituz.

Honenbestez, egindako **baimen eskaera ez onartzea** erabakitzen da eta 20 egunetako epea ematea esleipenaren eta sinatutako hitzarmenen arabera exekuzio proiektua aurkezteko.

Erabaki hau erabatekoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

ZAZPIGARREN GAIA
ONARTZEA, BADAGOKIO, AURTENGO IRURAKO JAIETARAKO BEHIN
BEHINEKO AURREKONTUA.

Aurtengo Irurako jaietako, San Migel jaiak 2007, behin behineko aurrekontua aurkezten da:

Irailak 21	5.000.- €
Irailak 22	15.000.- €
Irailak 23	5.000.- €
Irailak 28	3.000.- €
Irailak 29	11.000.- €
Irailak 30	6.000.- €
Guztira	45.000.- €

Honen aurrean, udalbatzak, bertan daudenek aho batez hartutako erabakiaren bidez, aurkeztutako behin behineko aurrekontu hau onartzen dute.

Aztertzeke beste gairik ez dagoenez, 21:40etan eman da amaitutzat bilera. Han esandako guztia aktan jaso eta idazkari nauzuen honek EGIAZTATZEN dut.